



Euskal Herriko kostaldea (III): Bizkaiko padurak

Mikel Estonba Mintxero*

Bizkaiko itsas padurak banan-banan aztertu aurretik, interesgarria da lurralde honen sare hidrografikoak dituen berezitasunak aipatzea, hauek eragin zuzena baitute itsasadarrengan. Gipuzkoako kasuan, ibai guztiek hegoalde-iparralde norabidea dute bitartean; Bizkaian, egitura geologikoak hegoekialde-iparralde norabidean sinklinorio duelako, berezitasunak ditu: lurralde honen ekialdean itsasoratzen diren ibaiak, hegoalde-ipa-

M. Estonba



rralde norabidea dute eta luzera txikikoak diren bitartean, sinklinorioaren norabidea jarraituz ubidea zizelatzeko duen Ibaizabal ibaiak gainerakoekiko ia norabide perpendikularra du eta luzera handikoa da.

Gainerakoek ez dute Gipuzkoarekiko berezitasun nabarmenik, Nerbioi, Agüera eta Barbadun ibaiak, Atlantiarreko eta Mediterranioko isurialdeen arteko banalerroan jaiotzen diren edozein ibai kantauriarrekin konpara baitaitezke. Azter ditzagun orain itsasadar hauek banan-banan.

Artibai

Oitz mendiaren iparraldeko maldean jaiotzen den 20 kilometro eskasoko ibai hau, Euskal Herriko arrantzatza-portu nagusienetakoa den Ondarroako herrian itsasoratzen da. Bokalearen estugunea dela eta, gizakia padura eta dunen gainean ezarri zen hasiera-hasieratik, portuak eta herriak azken urte hauetan izan duten hazkunde ikaragarrien ondorioz, dunak erabat suntsitu egin dira eta padura minimoetara murriztu da. Azken aztarna hauek ere mehatxupe

Ondarroa. Erabat kanalizatuak ditu Artibai ibaiak bere azken kilometroak.

M. Estonba



Ondarroa. Padura-aztarna txiki bat soilik mantendu du Artibai ibaiak. Hau ere, errepede berri baten eraikuntzak mehatxatzen du.

daude Ondarruko bariante berria bertatik pasa nahi baitute. Debako kasuan bezala, azken aztarna hauek zaintzeak eta ahal den neurrian berreskuratzeak, lehenasuna izan beharko luke, gure ondare ekologikoaren zati garrantzitsuak baitira.

Lea

Aurrekoaren modura, Lea ibaia Oitz mendiaren iparraldeko maldetan jaiotzen da eta 20 kilometro inguruko ibilbidea egin ondo-

Lekeitio. Lea ibaiko padura eta Lumentxako artadia.



M. Estonba

NAZIOARTEKOAK

RAMSAR ITUNA

(1971eko otsailaren 2a)

- Nazioarte mailako garrantzia duten hezeguneen kontserbazioa du helburu itun honek.
- Une honetan RAMSAR zerrendan hiru hezegune ditugu Euskal Herrian: Mundaka-Gernikako itsasadarra, Urdaibai (1992); Biasteriko zingirak (1994) eta Arreoko lakua (1994).
- Erakunde desberdinen aldetik, ondoko hezeguneak RAMSAR zerrendan sartzea eskatu da: Txingudi badia. Urdazubiko padura. Orioko itsasadarra. Zumaiako itsasadarra. Leako itsasadarra. Plentziako itsasadarra. Pobeñako itsasadarra. Aipatzekoa da, hauetatik, Txingudi laster onartua izan daitekeela. RAMSAR itunaren komisiokoek hezegune honi buruz informazio gehiago eskatu baitute eta hurrengo bileran zerrendan sartu ala ez erabakiko omen dute.

BIOSFERA-ERRESERBAK

Sare honen bidez, mehatxupean dauden ekosistema tipikoen ordezkariak garrantzitsuenak babestea lortu nahi da.

UNESCOREN Gizakia eta Biosfera programan sartuta dago.

Gaur egun Biosfera-erreserba da:

Mundaka-Gernikako itsasadarra, Urdaibai (1984)

Itsasadarren babes-figurak eta

EUROPAKO BATASUNAREN CORINE PROGRAMAK

- Programa hauen BIOTIPO proiektuak espezie, asoziazio edo habitat mehatxatuak eta urriak dituzten ingurune garrantzitsuenen inentarioa egitea proposatzen du, gero babestuak izateko.
- Euskal Herriko kostaldean CORINE biotopotzat dauden inguruneak ondo-koak dira: Barrika-Matxitxako lurmuturra (Plentziako itsasadarra barne) Mundaka-Gernikako itsasadarra, Ogoño lurmuturra.

ESTATALAK

ESPAINIAKO UR-PLANGINTZA NAZIONALA

Plangintza honek hezegune garrantzitsuenak babestea proposatzen du. Bertan aipatzen direnak:

Mundaka-Gernika itsasadarra eta Txingudi badia dira.

Plangintza honen "Ipar-arroa III" plangintzak garrantzi berezikotzat onartzen du:

Pobeñako itsasadarra.

Eusko Jaurlaritzak ondoko itsasadarrak "Ipar-arroa III" plangintzan garrantzi bereziko hezegunetzat onartuak izatea eskatu du:

Plentziako itsasadarra.

Leako itsasadarra.

Oriako itsasadarra.

Zumaiako itsasadarra.

KOSTA-LEGEAK

Bai Espainiako estatuan, baita Frantziakoan ere, itsaso lehorreko jabetza

ren, Lekeitioko badia zoragarrian itsasoratzen da, artadiz betetako Lumentxa mendiak sortzen duen mehargune ikusgarria zeharkatu ondoren.

Jaiotzan eta ibilbidean Artibai eta Lea ibaiek antzekotasun handia badute ere, itsasadarretan nahikoa desberdinak dira, Learen kasuan itsasadarrak ez baitu aldaketa bortizik jasan. Ondorioz,

Bere erabilpena Euskal Herrian

publikoa zehaztea eta bere kontserbazioa zihurtatzea; itsasoa, bere erribera eta gainerako itsaso lehorreko jabetzaren erabilpen publikoa bermatzea; baliabide hauen erabilpen arrazionala arautzea eta uren kalitate-maila egokia mantentzea dute helburu.

Euskal Herriko itsasadar guztiak kostalege hauen babes dute printzipioz.

“ARRÊTÉ DE BIOTOPE”

Frantziako estatuan erabiltzen den babes-figura honek, bai biodibertsitaterako garrantzia duelako, edota egoera larrian aurkitzen diren inguruak dituelako, hainbat hezegune biltzen du.

Euskal Herriari dagokionez, ondoko hezeguneez dute babes hori:

Beltzeniako padura eta Txingudi badia (Hendaia).

Urdazubiko padura (Ziburu).

GARRANTZIA DUEN EKOLOGIA, FLORA EDOTA FAUNA DUTEN INGURUNE NATURALAK (ZNIEFF)

Frantziako estatuak duen babes-figura da. Babes-figura honetan izendatuta dauden Euskal Herriko inguruneak ondokoak dira:

Beltzeniako padura.

Urdazubiko padura.

ORNITOLOGI ALDETIK GARRANTZIZKOAK DIREN INGURUNEAK (ZICO)

Frantziako estatuan, ornitologi ikuspegitik garrantzitsuak diren inguruneak babesteko sortu den figura da.

Era honetan izendatuta dagoen hezegunea Beltzeniako padura da.

AUTONOMIKOAK

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO GARRANTZIZKO BARRENDEGI ETA INGURUNE NATURALEN KATALOGOA

Ondokoak daude katalogo honetan:

Pobeñako padura.

Plentziako itsasadarra.

Mundaka-Gernikako itsasadarra

(Urdaibai).

Leako itsasadarra.

Xantixoko padura (Zumaia).

Urolako itsasadarra.

Inurritzako padura (Zarautz).

Oriako itsasadarra.

Bidasoako itsasadarra (Txingudi).

EUSKADIKO HEZEGUNEEN LURRALDE-EGITAMU SEKTORIALA

Ingurune garrantzitsuak babesteko asmoz idatzita dago. Euskal Autonomi Elkarteak kostako hezeguneekin ondoko sailkapena egiten du:

Aparteko balioa dutenak

Gernika-Mundakako itsasadarra (Urdaibai).

Balio handikoak

Txingudi badia.

Plentziako itsasadarra.

Balio estimagarrikoak

Pobeñako itsasadarra.

Leako itsasadarra.

Oriako itsasadarra.

Zumaiaiko itsasadarra.

Balio gutxiago dutenak

Artibaiko itsasadarra.

Inurritzako itsasadarra.

Debako itsasadarra.



Urdaibai Ereñozar menditik.

LURRALDE ANTOLAKETARAKO ZUZENBIDEEN PROIEKTUA (LAZ-DOT)

Honako babes-figurak dituzte EAeko padurek:

Babestutako ingurune naturalak

Urdaibai Biosfera-erreserba.

Natura aldetik garrantzi bereziko inguruneak

Txingudi badia.

Kontserbazio aktiboa

Ezaugarri naturalak ongi mantendu dituzten inguruneak babesteko figura. Sailkapen hau dute Oriako padurek.

Babes hertsia

Ekologia, kultura edo paisaiaren ikuspegitik zabalera txikia duten ingurune bereziak babestuko lirateke honela. Padurei dagokionez, horrela babestuko litzateke: Santixo padura (Zumaia).

Ipazter.

Lea ibaiaren xehetasuna.



bere padura Euskal Herrian ikus daitekeen ederrenetarikoa eta aldi berean ezezagunetarikoa dela beldur gabe esan dezakegu. Hala ere, nahiz eta padura hau Eusko Jaurlaritzako ingurugiro Sailordeak egindako Euskadiko natur barrendegien katalogoan jasota egon eta Hezeguneen Lurralde Egitamu Sektorialen arabera, babestu beharreko heze-

gunea izan, Bizkaiko Foru Aldundiak Lekeitioko uren saneamendurako depuradora, bertan ari da eraikitzen. Harrigarria benetan!

Urdaibai

Bizkargi eta Oitz mendien maldeetan jaiotzen den Oka ibaiak, Urdaibai izenaz ezagutzen den itsa-

M. Estonba



Urdaibai inguruko mendietan mantendu da Euskal Herriko Atlantiar isurialdeko artadi ordezkari-tza hobere-na. Argazkian Ereñozar mendia.

sadar zabal eta zoragarria sor-tzen du Gernika eta Mundaka herrien artean.

Harrigarria bada ere, itsasadar honek, Euskal Herriko gainera-koekin gertatu ez den modura, bere egitura naturala mantendu egin du, eta bere urak inolako kanalizaziorik gabe, limo eta hon-darretan meandro zabalak eratuz itsasoratzen dira.

Giza eragin txikiaren ondorioz, Urdaibaiko padurak, gaur egun arte bederen, landaredi halofito-en ordezkari-tzarik handiena eta biodibertsoena edukitzeaz gain, hegazti-dentsitate altua eta di-bertsitate handia eskaintzen digu, migrazio-garaitan batik bat.

Baina Urdaibaik duen balio eko-logikoa ez da bere padurara mu-gatzen, itsasadarra inguratzen du-ten mendietan (Atxerre, Ereñozar, etab.) Euskal Herriko kostal-deko Atlantiar isurialdeko artadi hedatuenak eta hobekien kon-tserbatutakoak baitaude.

Guzti honi esker, Urdaibain, kilo-metro karratu gutxiko eremuan, ongi egituratutako ekosistema desberdin ugari aurkitzen da: pa-dura, artadia, landa, haltzadia, itsas labarrak, etab.; honek, itsa-

sadarraren biodibertsitate ikara-garriaren arrazoiak ulertzen la-guntzen digularik.

Balio guzti hauen ondorioz eta baita 70. hamarkadan Bizkaiko Foru Aldundiak itsasadarra anto-latzeko prestatu zuen proiektu basatiaren aurka talde ekologis-tek egin zuten lan eta presioaren ondorioz, 1984. urtean UNES-COK "Biosferaren erreserba" izendatu zuen Urdaibai, Euskal Herriko altxor ekologiko honen kontserbazioari sekulako bultza-da emanaz.

Baina, Biosferaren erreserba izendatzeak ez zuen kontserba-zio-neurririk martxan jartzea

berarekin, eta bitartean hainbat erasok eta mehatxuk arriskuan jartzen zuten erreserba; hala nola turismo eta eraikuntzen emen-dioa, dragaketak, lehorketak, marisko-bilketa inkontrolatua, isi-leko ehiza, etab. Erraz antzeman zitekeen beraz, inguru zoragarri hau mantenduko lukeen ordena-zio-legea behar zela. Kostata baina, iritsi zen azkenik. UNES-COK Urdaibai Biosferaren erre-serba izendatu zuenetik, bost ur-te pasatu behar izan zuten Eusko Jaurlaritzak, 1992. urtean, Urdai-baiko Biosferaren erreserbarako babes- eta antolaketa-legea apro-batu artean.

M. Estonba



Mundaka (Urdaibai). Urdaibaiko bokaleak ikuspegi zoragarria eskaintzen du.

Urdaibain ditugu padura-zabalerarik handienak.

M. Estonba



M. Estonba



Butroeko itsasadarra.
Txipio ibarra. Bizkaiko bigarren hezegune hau arriskuan dago, kirol kaia eraiki nahi baitute bertan.

Butroeko itsasadarra.
Isuskizako ingurua. Itsasadar honetan, hau bezalako leku xarmagarriak ikus daitezke oraindik.

M. Estonba



Une honetan, guztion gustukoa ez bada ere, legeak agintzen duen Erabilpen eta Kudeaketarako Plana onartu egin da, bertan babes-figura desberdinen bidez, erreserbako baliabideen erabilpena erregulatzen delarik. Aipagarria da bestalde, 1992. urtean, planetako hezegunerik garrantzitsuenak babestea helburu duen RAMSAR konbenioak, Urdaibai bere zerrendan sartzea erabaki zuela, hezegune honi nazioarteko onespren berria emaz.

Butroeo

Butroeo ibaiak Gorniz, Barrika eta Plentziako eremuetan eratzen duen itsasadarraren arazo nagusia Urdaibaitik gertu egotea da, Urdaibairen ospeak itzal egin baitio Plentziako itsasadarrari, duen balio ekologiko handia ia ezezaguna bilakatuz. Hala da, Urdaibairen ondoren, Euskal Herriko gainerako itsasadarrek duten egoera kontutan hartuz, Plentziakoa Txingudiren parean kokatu beharko litzateke.

Eskualde honek duen biztanle-dentsitate txikiak, bokalearen azken zatia kanalizatuta egotea galarazi ez badu ere, padura-eremu zabalak (Junkera, Isuskizako meandroa,...) eta garai batean nekazaritza-ustiaketarako erabilgarriak bihurtu asmoz mareen eragina galdu duen arren, gaur egun hezegune halofitoen ezauzgarriak berreskuratu duten zenbait zona mantendu egin ditu.

Azken hauen artean, aipamen berezia merezi du Txipio ibarrak. Egun, Plentzia-Barrika errepidea eraiki zelako itsasadarrarekiko lotura galdu zuen hezegune zabal eta zoragarri honek, zorritzarrez ospe handia hartu du azken hilabete hauetan, Zumaian bezalaxe, kirol kaia eraiki nahi baita bertan. Ez dago berriro esan beharrik, baina ekologiaren ikuspegitik astakeria galanta litzateke Txipion horrelako azpiegitura eraikitzea. Gainera, beste hainbat aspektu sozio-ekonomiko eta sedimentologikoen ere, kolokan jartzen dute proiektu honen bideragarritasuna.

Kasu honetan ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordearen eskutik dator itxaropena, honek egin duen Euskadiko Natur Barendegien Katalogoan eta baita Hezeguneen Lurralde Egitamu Sektorialean ere, Plentziako padura eta horren barruan Txipio ibarra bereziki, zorrotz babesteko eremutzat agertzen baitira. Auzi honetan razionaltasuna nagusitzea eta Txipio ez desagertzeari nahi genuke.

Bilboko itsasadarra

Nerbioi ibaiak Araba eta Bizkaiko mendebalde eta Ibaizabal ibaiak Bizkaia hegoekialdetik iparmendebaldera zeharkatu ondoren, Basaurin bat egiten dute eta 30 kilometrotan Euskal Herriko portu eta industrigunerik garrantzitsuen osatzen duen Bilboko itsasadarra eratzen dute.

M. Estonba



M. Estonba



100 urte baino gutxiago pasa dira Kadagua ibaia Nerbioi-Ibaizabal itsasadarraren amaiera erakusten duten bi argazki hauen artean. Komentarioak soberan daude.


Historiak utzitako lekukotasun grafikoek azaltzen dutenez, bi ibai hauek, eta neurri txikiagoz, itsasadar honetan amaitzen duten hainbat ibai eta errekek (Gobelaz, Kadagua, Galindo,...) sortzen zuten padura, Atturrikoarekin soilik konpara zitekeen, bere ornitologi joritasuna, eta oro har, bere balio ekologikoa aparta baitzen. Zoritxarrez, ekologia bitxi honetaz, gaur egun ez da aztarnarik geratzen, meategien ustiapenari

lotuta dagoen industria siderurgikoaren garapenak, azken mende honetan, bere burua elikatzeko populazio- eta industri fluxu ikaragarria sortu baitu. Ondorioz, giza okupazioa erabatekoa izan da, itsasadarra kanal bihurtu delarik. Bilboko itsasadarrean egindako sarraskiek erakutsi beharko ligu-kete gure ondare ekologikoarekiko behar dugun errespetua izaten; eta bereziki, gaur egun arte balio naturalak mantendu dituzten Euskal Herriko itsasadarreko.

Pobeñako itsasadarra

Barbadun da Euskal Herrian mendebaldean itsasoratzen den ibaia. Artzentalesko mendietan jaiotzen den ibai honek, meategiz jositako Triano mendietatik

M. Estonba





datorren Kotorrio errekarrekin elkartu, eta Pobeñaiko itsasadarra eratzen du.

Ibai hauek, bigarrenak bereziki, Bizkaiko meategien eskualdea zeharkatzen dute eta bertako uren kalitatea oso txarra da aspaldidanik.

Padurari dagokionez, 1971. urtean Petronor enpresak bere petrolio-birfindegia paduran eraiki zuenean, sekulako jipoa jasan zuen. Hau dela eta, bere zabalera metro karratu batzuetara mugatua geratu da.

M. Estonba



Pobeña. Barbadun itsasadarra. Hau da, itsasadar honetan dagoen paduretako bat.

Lehenengo Petronor, eta ondoren Kantabriako bariantea jipoi ederrak izan dira Barbadun ibaiaren padurarentzat. Hala ere, padura zoragarriak mantentzen dira oraindik.



Dena den, Petronor eta Kantabriako bariantearen artean, eta Pobeñaren ondoan kokaturik dauden paduren egoera zoragarriek, kanalizaziorik gabeko ibai-amaiera eta Arenako hondartzaren duna zabal eta xarmangarriekin batera, garrantzi handiko ekologia duen inguru bakarrenetakoa bihurtu dute itsasadar hau.

Balio hauek, padura Ingurugiro Sailordeak Hezeguneen Lurralde Egitamu Sektorialean eta Euskadiko Natur Barrendegien Katalogoan sartzea eragin dute, giza-kiaren eraso bortitzak gainditzea lortu duten azken padura-puska hauentzat itxaropen-leihatila irekiz.

Laburbilduz, itsas padurak Euskal Herriko ekosistemarik garrantzitsuenak direla biodibertsitate-eta produktibitate-ikuspegitik esan daiteke. Era berean, ez dago ukatzerik aberastasun honek (kostaldeak eta itsasadarrek bereziki), bizitzarako dituzten aldeko baldintzekin batera, giza ezarpena eragin duela.

Guzti honen ondorioz, inguru hauek bere beharretara molda-

tzen saiatu da aspaldidanik giza-ki, paradoxikoki, giza erakarpena sortu duten balio hariiek ia desagertzeraino eraman dituelarik.

Fenomeno hau ikaragarri emendatu da azken hamarkadatan eta ondorioz, oso gutxi dira gaur egun arte kontserbazio-egoera ona mantendu duten padurak. Batzuk erabat desagertu dira eta gainerakoak oso egoera larrian aurkitzen dira.

Dudarik gabe, inguru hauen balio ekologiko itzelak behin eta berriro goraiatu dituzten proiektu-, plan- eta antolaketa-proposamenetik babes-ekintzetara pasatzeko garaia iritsi da, denbora altxor ekologiko hauen iraupenaren aurka baitoa.



* **Biologoa.**